



GOBERNU PLANA

2019-2023

Legazpiko Udala



LEGAZPIKO
UDALA



AURKIBIDEA

AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA.....	3
GURE XEDEA	4
GURE IKUSPEGIA.....	5
GURE BALIOAK.....	6
GURE GOBERNU-PLANA	7
ANTOLAKETA.....	9
LURRALDEA	22
HERRITARRAK.....	37
GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA (GIH)	54

AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Aurreko 2015-2019 legegintzaldian hasitako lan ilusionagarrian murgilduta, udal-antolaketa egitura arin, moderno, garden eta, batez ere, eraginkor eta efiziente bihurtzeko lanean, Gobernu-Taldeak 2019-2023 epealdiko Gobernu Plana prestatzen aritu da. Tresna hori ez-ohikoa da toki-administrazioan, gainera berritzailea delako erakargarria da.

Legegintzaldi berriko Gobernu-plana egiteko, eta nazioarteko konpromisoak Legazpiko politiketara eramaten jarraitu behar dela sinetsita, gobernu-taldeak urrats bat gehiago eman du eta Garapen Iraunkorreko Helburuak txertatu ditu 2019-2023ko Gobernu-planean.

Dokumentu hau bukatzen ari ginela COVID-19aren pandemiak iritsi zen eta bete-betean harrapatu gintuen; ondorioz, gure eguneroko bizitzako arlo guztietan gertatu den bezala, prozesu hori etenda geratu zen, pandemiak sortu dituen bestelako behar ugari erantzuteko.

Dagoeneko urtebete igaro da pandemiak gure planak eta bizitzak aldatu zituenetik, eta ilusio handiagoz ekin diogu berriz orduan hasitako lanari. Horren emaitza da aurkezten dugun dokumentua, egungo errealitateari egokitu duguna.

Eremu publikoan Plangintza Estrategikoa ezinbesteko erremintatzat jotzen da baliabideen lehentasuna eta esleipena identifikatzeko; are gehiago etengabeko aldaketen eta eskakizun handien testuinguru batean gaudenean, emaitzekin konprometitutako kudeaketa baterantz aurrera egiteko.

Ekintza politikoa Gobernu-plan baten bidez zehazteak onura asko ditu, zalantzarik gabe:

- arlo bakoitzeko helburuak ezarri eta lehenesten ditu.
- udal aurrekontuak egitea errazten du; izan ere, baliabideak arrazionalizatu eta alde aurretik lehenetsitako helburuen arabera banatzen direnez, aurrekontuak egiteko oinarrizko elementu bihurtzen da.
- Gobernuaren lana errazten du, haren ibilbide-orria bihurtzen delako.
- betetze-maila neurtzeko aukera ematen die bai herritarrei bai udalbatzako gainerako talde politikoei.
- kudeaketa publikoan gardentasunaren eta parte hartzearen ikurra bihurtzen da.

Alkatetzak gidatu du Gobernu-plan hau egiteko prozesua, eta barne koordinaziorako organoaren laguntza izan du horretarako, hau da, Zuzendaritza taldearen eta hiru arloren (Herritarrak, Lurraldea eta Antolaketa) laguntza. Azpimarratzekoa eta eskertzekoa da udal langile guztien laguntza eta parte hartzea, horri esker Planak gure egoera zehatzean eta egun bizi dugun errealitatean oinarritutako proposamenak biltzen baititu.

GURE XEDEA

PERTSONA GUZTIENA ETA GUZTIONTZAT

Xedeak, besteak beste, honakoak zehazten ditu: legealdi honetan bereziki garatuko dugun jarduera, prestatu beharreko zerbitzuekin bete nahi ditugun premiak, zerbitzuak zein egoeran garatuko diren eta eman nahi dugun irudi publikoa; azken finean, gure Xedea galdera honi ematen zaion erantzunarekin zehazten da: zertarako gaude udaletxean?

Gobernu-talde honen Xedea da legazpiarren, bisitan etorriko direnen eta gure udalerrian lan profesionala egiteko interesa agertuko dutenen premiei eta itxaropenei erantzuna ematea. Haiek dira ardatz nagusia eta haiei prestatzen diegu udal zerbitzu publiko eraginkor eta efizienteak, bikaintasunera eta berrikuntzara bideratutako giza talde profesional baten bidez.

GURE IKUSPEGIA

ETORKIZUNeko LEGAZPI ERAIKINTZEN

Gure Ikuspegiak egungo gobernu-taldeak 2019-2023 Legegintzaldian izan nahi duen egoera deskribatzen du. Gure ikuspegiaren helburua erakunde osoa gidatzea, kontrolatzea eta bultzatzea da, ezarritako helburuak lortzeko. Gure ikuspegia honako galderari erantzuten diogunean zehazten dugu: hemendik 4 urtera nolako udalerrria nahi dugu?

Legazpi parekidea, kritikoa, talde-lana egingo duena, inklusiboa, iraunkorra, euskalduna eta askotarikoa nahi dugu; bizitzeko, lan egiteko eta bisitatzeko erakargarria izango den herria.

Ikuspegi hori eta aurreko atalean zehaztutako Xedea dira, Legegintzaldi honetan egingo ditugun gogoeta eta jarduera guztiak gidatuko dituzten formulazioak.

GURE BALIOAK

Gure balioek Gobernu-talde honen kudeaketaren funtsezko printzipioak definitzen dituzte:

- **Iraunkortasuna eta eraginkortasuna:** gure helburuak beteko direla bermatzen dugu, baliabideak modu arrazional eta iraunkorrean erabiliz.
- **Gardentasuna eta kontuak ematea.** Gobernuak egiten duena azaltzen dugu eta horren berri ematen dugu, modu argian eta herritarren eskura jarrita.
- **Hurbiltasuna eta parte hartzea:** entzute aktiboaren bidez, gure herritarrek politika publikoei buruzko erabakietan parte hartu ahal dutela ziurtatzen dugu.
- **Zintzotasuna eta errespetua:** herritarrekin ditugun konpromisoak betetzen ditugu, zuzen, zintzo eta koherentziaz jokatu.
- **Berdintasuna, ekitatea eta aniztasuna:** tratu- eta aukera-berdintasuna bultzatuko ditugu herritarrentzat, haien genero-, kultura-, hizkuntza- eta funtzio-aniztasuna kontuan hartuta, eta diskriminazio positiboa sustatuko dugu arrisku-, zaugarritasun-, babesgabetasun-, eskusio- edo mendekotasun-egoeran daudenentzat.

GURE GOBERNU-PLANA

Gure Gobernu-plana formalki hautatutako eta lehenetsitako ekintzen multzoa dela ulertzen dugu; gure ikuspegia lortzeko eta helburuak gure balioen arabera bete ahal izateko plana.

Azkeneko urteotan testuinguru berri bat gailendu da eta testuinguru horretan Udalek tokiko eremuko kudeaketa garatu behar dute.

- Arlo horretan garrantzi handia duten eta eragin zuzena duten araudi berriak hartu behar ditugu kontuan:
 - Aurrekontuen Egonkortasuna arautzen duen Legea.
 - Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legea.
 - Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea.
 - Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea.
 - Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren Legea.
 - Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea.
- Joera ekonomikoek eta sozialek eragin zuzena dute gizartean baina baita, bereziki, toki administrazioan ere. Besteen artean honako hauek aipa ditzakegu:
 - Teknifikazioa bizitzaren esparru guztietan.
 - Biztanleen zahartzea.
 - Iraunkortasunaren aldeko kezka gero eta handiagoa.
- Krisi finantzario eta ekonomikoaren aldi luzearen ondoriozko aurrekontu-mugak; izan ere, ez dira berreskuratzearen ondorioak herritar guztiengan ikusten. Diru-sarrerak gutxitzen doazen bitartean, etengabe areagotzen dira behar sozialak.
- Azkenaldiotan agerian jarri diren gizartearen eskari garrantzitsuek toki-administrazioaren eta herritarren arteko harremanetarako eredu berria marrazten dute. Honako kontzeptuez ari gara: gardentasuna, parte hartzea, arrazionalizazioa, jokabide etikoa, eredugarritasuna,... eta abar.
- COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoera berriek aurreikusi ez ditugun baina egin beharreko jarduketak birplanteatzera garamatzate.

Udalak, beraz, Legazpiri eta legazpiarrei balio erantsia emango dien administrazio gisa eratu behar dela onartu behar du; alde batetik, lurralde-aktibo gisa, kalitatezko zerbitzu publikoak eskainiz eta, bestetik, gobernu gisa, jarduera ekonomikoarekin, enpleguarekin, kultur bizitasunarekin, iraunkortasunarekin, integrazioarekin, osasunarekin... eta bestelako gaiekin zerikusia duten proiektu partekatu bat sustatuz eta haren formulazioan parte hartuz.

Legazpiko Udalak onartzen duen bigarren Gobernu-plana dugu honakoa. Horregatik, lehenengoak eman digun esperientziatik abiatuta egiten diogu aurre plan berriaren plangintzari, gauzatzeari eta ebaluazioari.

Ikuspuntu horretatik, badira bi alderdi Plan berri honen egituran azpimarratzekoak:

- Alde batetik, ekintza guztietan etengabeko erreferentzia egiten zaie Garapen Iraunkorrerako Helburuei (GIH). 2015ean, Nazio Batuen Erakundeak garapen iraunkorrerako 2030 Agenda onartu zuen. Agendan garapen iraunkorrerako 17 helburu jasotzen dira eta Euskadin 18. helburu bat gehitu da: hizkuntza- eta kultura-aniztasuna. Garapen Iraunkorrerako Helburuetan, besteak beste, honakoak jasotzen dira: pobrezia ezabatzea, klima-aldaketari aurre egitea, hezkuntza, emakumearen berdintasuna, ingurumenaren defentsa edo gure hirien diseinua. Legazpiko Udalak, gainera, Legazpi Klima 2030 plana onartu zuen 2017an. Plan hori aukera bikaina da guztion bizitza hobetuko duen bide berri bati ekiteko, inor atzean utzi gabe.
- Kontuak ematea da Gobernantzaren oinarrizko printzipioetako bat. Baina kontuak emateko, guztiz beharrezkoa da geure burua neurtzea. Aurreko plana ebaluatu genuenean, adierazle argi eta zehatzak falta zirela ohartu ginen, helburuak benetan betetzen genituen jakiteko. Horregatik, 2019-2023ko Gobernu-plan honek kudeaketa-adierazleen taula bat darama, bai eta zein Garapen Iraunkorrerako Helbururi laguntzen dion ere.

Segidan, ezarritako 7 helburu estrategikoak jasotzen ditugu, horiek lortzeko aukeratu ditugun ekintzak, ekintza horiek gauzatzearen ardura duten politikariak eta udal teknikariak eta kronograma, hori guztia arloka ordenatuta: herritarrak, lurraldea eta antolaketa.

Hauek dira ezarritako 7 helburu estrategikoak:

1. Udal eraginkorra
2. Udal eredugarria
3. Hirigintza harmoniatsua eta erresilientea
4. Ondare publiko egokia eta hobetua
5. Arreta, babesa eta garapen sozial berritzailea bermatzea
6. Gizarte euskalduna, aktiboa eta parte hartzailea sustatzea
7. Garapen sozioekonomikoa bultzatzea

ANTOLAKETA

Arlo honetan ondoko zerbitzuak sartzen dira:

- **Alkatetza eta Komunikazioa**
- **Administrazio Orokorra**
- **Langileak eta Kontratazioa**
- **Ekonomia, Ogasuna eta Berrkuntzak**
- **Herritarrentzako arreta eta Parte hartzea**

Legazpiko Udaleko Antolaketa arloak bi helburu estrategikotan egituratu du bere parte hartzea Gobernu-planean: udal eraginkorra eta udal eredugarria.

Helburu horietako bakoitzak, hura lortzea ahalbidetuko duten ekintzak, jardunbideak edo proiektu zehatzak ditu.

- **Udal eraginkorra:** Helburu hori saihestezina da herritarrak gobernu-ekintzaren erdigunean jartzen dituen edozein udalentsat. Gai izan behar dugu haien premiak identifikatzeko; horretarako entzute aktiboa eta parte hartzea sustatuko dugu eta ondoren eraginkortasunez erantzun. Helburu hori lortzeko hiru ekintza ezarri ditugu:

- **Antolaketa-egitura optimizatu eta balioetsi.**

Aurreko legegintzaldiaren hasieran gobernu-taldeak antolaketa-egitura egokitzeko lanak hasi zituen, egitura hori eraginkorragoa izan dadin politika eta kudeaketa bateratzeko orduan. Zuzendaritza sortu zen eta, Udalbarria ereduari jarraiki, batzorde politikoen eta antolaketa-arloen egitura sinplifikatu zen.

Egitura, hala ere, ez dago lerrokatuta ez plantilla organikoarekin, ez lanpostuen zerrendarekin. Horregatik, datozen urteetan, lanpostuak behar bezala deskribatu behar dira, polibalentzia sustatzeko eta balio publikoa sortzeko.

- **Erakundearen giza kapitala garatu, gaitu eta balioetsi.**

Erakunde honetan lan egiten duten pertsonak osatzen dute kapital garrantzitsuena, haiek baitira gobernu-taldeak garatzen dituen politika publikoak herritarrengana ahalik eta ondoen iritsiko direla bermatzen dutenak.

Gaur egun, urteko prestakuntza-planak egiten dira baina nahitaezkoa da prozesu horiek plantillaren zati esanguratsu batera zabaltzea eta sailen arteko prestakuntza sustatzea.

Lanpostuen azkeneko balorazioa duela 15 urte baino gehiago egin zen. Berritzeko ordua da, ordainsari-sistema modernizatu eta bidezkoagoa egingo duten jarduna ebaluatzeko sistemak txertatuz gainera, eta, aldi berean, proiektu berritzaileak sortzea eta martxan jartzea sustatuko da.

- **Eraldaketa elektronikoa amaitu eta herritarrekiko harremanak behar bezala kudeatu.**

Zaila da teknifikazio prozesuek amaiera definitua izatea, administrazioak herritarrekin eta beste administrazio batzuekin dituen harremanetan. Argi dago, hala ere, administrazio elektronikoak bultzada behar duela Udalean bertan, baita herritarrekiko eta Udalaren arteko harremanetan ere.

Aurrera egin nahi dugu kudeaketako aplikazioen integrazioan eta martxan jarri nahi ditugu jakinarazpen elektronikoa eta artxibo elektronikoa.

Bestetik, ezin dugu ahaztu herritarrek ere baliabideak, gaitasuna eta bermeak behar dituztela Udalarekin elektronikoki harremanak izateko.

- **Udal eredugarria:** Gardentasuna, parte hartzea, zintzotasuna eremu publikoan,... bezalako kontzeptuek jarduteko joerak izateari utzi diote eta lehen mailako eskakizun instituzionalak izatera iritsi dira. Urte asko dira Legazpiko Udala kontzeptu horiekin konprometituta dagoela eta ezin du Gobernu-plan batean eredugarritasuna aipatu gabe utzi. Hori lortzeko honako ekintza garatuko dugu:

- **Eremu publikoan gobernantza ona eta etika sustatu.**

Legazpiko Udala lehena izan da Erakundearen Zuzentasun sistema onartzen, gobernantzaren eta etika publikoaren esparruan jarduteko tresna gisa. Sistemarekin batera, arduradun publikoentzako (gobernuan ardurak izan edo ez) eta langileentzako kode etikoak onartu dira.

Bi kode etiko onartzea falta da: Udalarekin kontratuak egingo dituzten erakundeentzako eta Udalaren diru-laguntzak jasoko dituztenentzako.

2018an, Udalak Gobernantza eta Berrikuntza Demokratikoko Bikaintasunaren Europako Zigilua lortu zuen, ELOGE.

Datozen urteetarako hauexek izango dira gure erronkak: gaur egun Legazpiren gobernantzaren heldutasun-maila bereizgarri hori lortu duten 8 euskal udalerrien artean egotea ahalbidetu diguten prozesuak mantentzea, proiektuen balorazioa ahalbidetzea eta gardentasunaren, kontuak ematearen eta parte-hartzearen arloan jarduerak garatzea, kudeaketa publikoaren gobernantza integralean aurrera egiteko.

01 HELBURUA – ANTOLAKETA ARLOA – UDAL ERAGINKORRA

01 EKINTZA - ANTOLAKETA-EGITURA OPTIMIZATU ETA BALIOETSI

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA														
			2019	2020	2021	2022	2023										
1	UDALAREN ANTOLAMENDU-EREDURA EGOKITUTAKO LANPOSTUEN DESKRIBAPENA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA																
	15.000,00 €	Alkatea / AOT	■	■				■	■	■	■						
2	TALDE-LANA, ELKARREKINTZA ETA POLIBALENTZIA SUSTATUKO DITUEN LAN-EREMUA SORTU																
	160.000,00 €	Alkatea / Arkitektoa													■	■	■
3	LANPOSTUEN ERAMANGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA SUSTATU																
	20.000,00 €	Alkatea / Koordinatzailea / Informatikaria													■	■	■
4	ERAKUNDEAREN IRUDI KORPORATIBOA MODERNIZATU, SISTEMATIZATU ETA EGOKITU																
	15.000,00 €	Alkatea / Koordinatzailea														■	■

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA



Kontuak emateari, gardentasunari eta informazioa eskuratzeari helden die, bai eta sailen arteko koordinazioari ere.



Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna

ANTOLAKETA-EGITURA OPTIMIZATU ETA BALIOETSI

1. Lanpostuen deskribapena eta Udalaren antolakuntza eredura egokitutako lanpostuen zerrenda.

Udaleko lanpostu guztien funtzioak behar bezala deskribatuta egon behar dira. Baina garaiak aldatu egiten dira, eta funtzioak ere aldatu egin daitezke. Garaia da denboran eta egituraz erabat desfasatuta geratu diren deskribapenak berriz aztertzeko.

Bestetik, Udalak bere lanpostuak sailkatu eta zerrendatu behar ditu, hain zuzen ere Lanpostuen Zerrenda deitzen den horretan. Zerrenda hori erreminta oso garrantzitsua da udal giza baliabideak kudeatzeko eta Udalak berriki ezarri duen antolaketa-egiturara egokitu behar dugu.

2. Talde-lana, elkarrekintza eta polibalentzia sustatuko dituen lan-espazioa sortu.

Legazpi bezalako udalerrri txiki eta ertainetan asko dira pertsona bakarreko zerbitzuak eta lanpostu oso espezializatuak. Horren ondorioz, edozein arrazoi dela medio (gaixotasun-bajak, oporrak, prestakuntza, baimenak,...), pertsona horiek ez daudenean egin gabe gera daitezke beren lanak eta horrek eragina du herritarrengan. Horregatik ematen diogu horrenbeste garrantzia polibalentziari.

Joan den legegintzalditik, konpartimentu estankoetan funtzionatzeko moduarekin bukatzen saiatzen ari gara, eta produktibitatea eta lanaren kalitatea, eta, ondorioz, ematen diren zerbitzuen kalitatea handitzen duen lan koordinatu eta lankidetzakoa zabaltzen.

Hori lortu ahal izateko oso komenigarria da ikuspegi horrekin bat egingo duten espazio fisikoak sortzea; lankidetzak eta polibalentzia erraztuko duten espazioak. Egia da, garai hauetan, inoiz baino errazagoa dela urrutiko komunikazioa baina komunikazio hori are errazagoa da espazio fisiko beretan mugitzen bagara.

3. Lanpostuetan eramangarritasuna eta mugikortasuna sustatu.

Lanerako espazio komunak sortzearekin batera, gai izan beharko ginateke zentro, bulego edo mahai jakin bati ez lotzeko. COVID-19aren pandemiak, behartu zuen konfinamenduarekin, telelana gure lanean lagunduko digun tresna bat dela erakutsi du. Ordenagailuek eta komunikazioek edozein lekutik lan egitea ahalbidetzen digute. Hori aprobetxatu behar dugu lan-dinamika bizkorragoak eta eraginkorragoak eta, bestetik, enplegatu publikoentzat gogobetegarriagoak sortzeko

4. Erakundearen irudi korporatiboa modernizatu, sistematizatu eta egokitu.

Hainbat urte daramatzagu gure erakundea eta gure zerbitzuak modernizatzeko, egokitzeko eta hobetzeko etengabeko ahaleginean. Irudi korporatibo modernizatuak eta garai hauetara egokituak aurrez egindakoa ikusaraziko luke, egindakoari balioa emango lioke eta komunikazioa, erakundearen batasuna eta kanpotik identifikatzea hobetzeko tresnak emango lizkiguke.

01 HELBURUA – ANTOLAKETA ARLOA – UDAL ERAGINKORRA

02 EKINTZA – ERAKUNDEAREN GIZA KAPITALA GARATU, GAITU ETA BALORATU

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA						
			2019	2020	2021	2022	2023		
1	LANPOSTUAK BALORATU ETA LANA EBALUATZEKO SISTEMA DISEINATU								
	15.000,00 €	Alkatea / AOT							
2	PRESTAKUNTZA BERRIZ DISEINATU, SENDOTU ETA ENPLEGATU PUBLIKO GUZTIEI ZABALDU								
	7.000,00 €	Alkatea / AOT							
3	KUDEAKETA EREMUAN IDEIA BERRITZAILEEN GARAPENA SISTEMATIZATU								
	Baliabide propioak	Alkatea / Koordinatzailea							

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA



Kontuak emateari, gardentasunari eta informazioa eskuratzeari heltzen die, bai eta sailen arteko koordinazioari ere.



Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna

ERAKUNDEAREN GIZA KAPITALA GARATU, GAITU ETA BALORATU

1. Lanpostuak baloratu eta lana ebaluatzeko sistema diseinatu.

Aurreko atalean aipatutako udal-langileekin lotutako zereginak egin ondoren, enplegatu publikoen ordainsarien zenbatekoa eta egitura ere berrikusi beharko dira.

Baina ez ginateke ordainsari-egitura estanko, opako eta finko batean geratu behar. Bikaintasuna, intentsitatea eta balio publikoaren ekarpena sarituko dituen ordainsari-sistema bat diseinatu beharko genuke. Enplegatu publikoaren oinarrizko Estatutuak orain dela 12 urte aurreikusi zuen hori, modu eskematikoan izan bazen ere. Hala ere, ez da araudi hori garatu eta horrek nabarmen zaildu du ordainsari-sistema hura ezartzea.

Hala ere, esperientzia nahikoak daudela uste dugu; horiek aztertu ditzakegu eta behar bezala osatzen lagunduko digute.

2. Prestakuntza berriz diseinatu, finkatu eta enplegatu publiko guztiei zabaldu.

Enplegatu publikoen prestakuntzak eragin garrantzitsua du haiek prestatzen dituzten zerbitzuen kalitatean. Era berean eragina du bere zereginak egiteko orduan duen gogobetetasunean, zeregin horiek errazten dituelako eta segurtasun handiagoa eskaintzen diolako.

Udal osoak daki eta bereganatuta du hori; horregatik zerbitu guztietan sistematizatu eta bultzatu nahi da.

Edozelan ere, badakigu, arrazoi batzuk edo beste batzuk direla medio, langile guztiak ez direla erraztasun berarekin sartzen prestakuntzara. Prestakuntza-planen diseinua hobetu nahi dugu, erakunde osora iritsi dadin.

3. Kudeaketa eremuan ideia berritzaileen garapena sistematizatu.

COTEC fundazioak, sektore publikoan berrikuntza landu eta sustatzen duen erakundeak, honela definitzen du berrikuntza: ...”Ezagutzan (ez soilik zientifikoa) oinarritutako aldaketa oro (ez soilik teknologikoa), balioa sortzen duena (ez soilik ekonomikoa)”.

Ezagutza erabat zabaldua dago erakundeetan. Nahitaezkoa da ezagutza hori azalartzea eta modu egokian balioestea, balio publikoa ematen duen neurrian.

Horretarako, enplegatu publiko guztiek jakin behar dute zein bide hartu behar duten norberaren ideia berritzailea entzun eta aintzat hartu dadin.

ERALDAKETA ELEKTRONIKOA AMAITU ETA HERRITARREKIKO HARREMANAK BEHAR BEZALA KUDEATU

1. Kudeaketa-aplikazioen integrazioa amaitu.

Orain dela 10 urte baino gehiago, Udalak bere kudeaketa-aplikazioak hobetzea eta batzea erabaki zuen. SWAL aplikazioa hautatu zen eta hasiera batean diru-bilketarekin hasi zen. 2015ean bizkortu egin zen batze-prozesu hori eta honakoak gehitu ziren: kontabilitatea, biztanleen errolda, espedienteen kudeaketa, dokumentuen kudeaketa, HAZ, sinadura eta egoitza elektronikoa,....

Egindako bideari esker, posizio onean gaude herritarrekin ditugun harremanak elektronikoki eraldatzeko bidean aurrera egiteko.

Hala ere, erronka batzuei heldu behar zaie, edo, gutxienez, aintzat hartu. Zehazki eta alde batetik, Ondarearen administrazioa; bestetik, nominaren eta giza baliabideen kudeaketa; eta azkenik, poliziaren kudeaketa. Ezingo diegu denei batera heldu, baina agintaldi honetan osatzeko gai izan behar dugu.

2. Jakinarazpen elektronikoa ezarri.

Espediente elektronikoa martxan jarri eta gure egoitza elektronikoa ireki eta erabiltzeko moduan egon ondoren, premiazkoa izan da jakinarazpen elektronikoa ezartzea.

Jakinarazpen elektronikoa 2020ko amaieran jarri da martxan.

3. Artxibo elektronikoa ezarri.

Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak honakoa ezartzen du 17. artikuluan: «Amaitutako prozedurei dagokien artxibo elektronikoa bakar bat izan beharko du administrazio bakoitzak». Hauxe da lortu nahi den helburua: «Dokumentu elektronikoak haien autentikotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatuko dituen formatu batean kontserbatu behar dira, eta, orobat, bermatu behar da haiek kontsultatzeko modua izango dela, eman zirenetik igaro den denbora gorabehera».

Aipatu Legearen alderdi batzuk orain dela urte batzuk indarrean sartu baziren ere, artxibo elektronikoarena behin baino gehiagotan atzeratu da eta ezin dugu berritri atzeratuko ez denik ziurtatu. Prozesu zaila da baina berandu baino lehen hartu beharko dugu gure gain.

4. Zerbitzu-kartak egin.

Lan hau aurreko gobernu-planean jaso zen baina egin gabe geratu zen.

Zerbitzu-karta batek argi eta garbi adierazten du Udalak zer eskaintzen duen arlo jakin batean eta herritarrek zer espero dezaketen arlo horretatik. Hortaz, funtsezko tresna da zerbitzuak prestatzeko.

Ahalik eta zerbitzu-karta gehien onartu eta komunikatu nahi dira baina, hori bai, era mailakatu batean.

5. Herritarren teknifikazioa eta Egoitza Elektronikoaren erabilera sustatu.

Aurreko legegaldiaz geroztik, udala eraldaketa-prozesu batean murgilduta dago, herritarrei zuzendutako administrazio baterantz. Administrazio elektronikoko irtenbideak aplikatzeak, herritarrentzat hurbilagoa, modernoagoa eta eskuragarriagoa izango den administrazio baterantz joatea ahalbidetuko du.

Udalaren webgunean badago egoitza elektroniko bat herritarrek Udalarekin izapideak egiteko, herritarren karpetara sartzeko, erregistro elektronikoa egiteko edo faktura elektronikoa bidaltzeko, adibidez.

Plataforma elektronikoen erabilerari buruzko datuak txikiak dira oraindik, eta, beraz, datozen urteetan lanean jarraituko dugu tresna elektroniko horien erabilera errazteko; horretarako, herritarren teknifikazioa sustatu eta bultzatuko dugu.

6. Herritarrekin komunikazio aktiboa hobetu.

Aurreko legegintzalditik, gobernu-taldea lanean ari da herritarrekiko komunikazioa hobetzeko. Horretarako, komunikazio telematikoko kanalak indartu dira, herritarrekin komunikatzeko kanal gisa Instagram eta LegazpiOn aplikazioa gehituta.

Horren ondorioz, gaur egun Udalarekin komunikatu nahi duen edonork aurrez aurre edo telematikoki egin dezake, Udalaren web orriaren bidez edo LegazpiOn APParen bidez.

Datozen urteetan herritarrekiko komunikazio aktiboa hobetzen jarraitu nahi dugu, beste komunikazio-elementu batzuk txertatuz, inkestak adibidez.

7. Abisuak eta herritarren kexak eta eskaerak kudeatzeko sistema optimizatu.

Legazpiko Udalari, eta gainerako udalei, abisuak, kexak eta iradokizunak bidaltzen zaizkie. Horiek guztiak sistematizazio-, neutraltasun- eta eraginkortasun-ikuspegi batekin erantzutea da erronka.

Herritarren abisuak, kexak eta eskaerak kudeatzeko sistema hori indartzeak eta hobetzeak zerbitzu hobea eskaintzea eta horretarako erantzun-denbora txikiagoa erabiltzea ekarriko du.

02 HELBURUA- ANTOLAKETA ARLOA – UDAL EREDUGARRIA

02 EKINTZA– EREMU PUBLIKOAN GOBERNANTZA ONA ETA ETIKA SUSTATU

AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA															
		2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028						
1 ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA BUKATU																	
Baliabide propioak	Alkatea / Koordinatzailea	■	■					■	■			■	■				
2 POLITIKA PUBLIKOETAN KONTUAK EMATEA OROKORTU																	
Baliabide propioak	Alkatea / Koordinatzailea			■				■				■					■
3 GARDENTASUNA ETA HERRITARREI JAKINARAZTEA HOBETU																	
8.000,00 €	Alkatea / Koordinatzailea									■	■	■	■	■			
4 POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN HERRITARREN PARTE-HARTZEA SISTEMATIZATU																	
Baliabide propioak	Alkatea / Partaidetzako teknikaria											■	■	■	■		

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA



Kontuak emateari, gardentasunari eta informazioa eskuratzeari heltzen die, bai eta sailen arteko koordinazioari ere.



Emakumeen ahaluntze politikoa sustatzea



Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna

EREMU PUBLIKOAN GOBERNANTZA ONA ETA ETIKA SUSTATU

1. Erakundearen zuzentasun sistema bukatu.

Legazpiko Udala aitzindaria izan zen erakundearen zuzentasun sistema bat onartzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistema oinarri hartuta, ondorengoentzako Kode Etikoak edo jokabide egokien kodeak barne hartzen dituen sistema diseinatzea erabaki zen: gobernu-ardura duten udaleko kargu publikoentzako, gobernu-ardurarik ez duten hautetsientzako, udal enplegatu publikoentzako, diru-laguntzen hartzaileentzako eta Udalarentzako lan egiten duten hornitzaile eta kontratistentzako.

Azkeneko bi talde horien kodeak eta horien funtzionamendua finkatzea falta da sistema osatzeko.

2. Politika publikoetan kontuak ematea orokortu.

Kontuak ematea da Gobernantzaren beste zutabeetako bat, eta Legazpiko Udala ere konprometituta dago harekin.

Aurreko legealdian martxan jarri zen antolaketa-eredu berria eta, harrezkero, nabarmen egin dute gora kontuak emateko moduak eta kopuruak. Batzorde informatiboetan orokortu egin dira kudeaketa-txostenak; parte-hartze bidezko prozesuen ondoren ugaritu egin dira herritarrei egindako "itzultzeak"; eta ahalegin handia egin da kontu publikoak argitzeko.

3. Gardentasuna eta herritarrei jakinaraztea hobetu.

Hauexek dira gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 9/2013 Legearen helburuak: jarduera publikoaren gardentasuna zabaldu eta indartzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea eta arduradun publikoek bete beharreko gobernu onaren betebeharrak ezartzea.

Udalak, oro har, erregularitasunez betetzen ditu legean jasotako helburu orokor gehienak, batik bat Gobernu Onari dagozkionak.

Hala ere, Udalaren gardentasun ataria hobetu behar dela uste dugu eta, horrezaz gain, herritarren fiskalizazio-jarduera erraztu behar dugu, tokiko politika publikoen garapenari eragiten dion orotan.

4. Herritarren parte-hartzea sistematizatu politika publikoen garapenean.

Legazpiko Udalak hainbat esperientzia izan ditu parte-hartzearen arloan, horietako batzuk duela urte askotatik hona: 2030 Agendaren Foroa (lehen Agenda 21eko foroa), foro soziala, parte-hartze bidezko aurrekontuak,...

Edozelan ere, lan eremu horretan sakondu nahi dugu sistematizazioaren ikuspegitik.

LURRALDEA

Agiri honetan jasotako ekintzak azaltzen hasi aurretik, Legazpiko Udaleko Lurralde arloa osatzen duten zerbitzuak identifikatuko ditugu:

- **Hirigintza eta Etxebizitza**
- **Obrak eta Zerbitzuak**
- **Herritarren segurtasuna**
- **Landa-garapena**
- **Mugikortasuna eta garraioa**
- **Tokiko garapen iraunkorra**

Legazpiko Udaleko Lurralde arloak bi helburu estrategiko handiren inguruan egituratu du bere esku hartzea Gobernu-planean: hirigintza harmoniatsua eta erresilientea eta ondare publiko egokia eta hobetua.

Helburu horietako bakoitzak, hura lortzea ahalbidetuko duten ekintzak, jardunbideak edo proiektu zehatzak ditu.

- **Hirigintza harmoniatsua eta erresilientea:** Klima-aldaketa ez da sinesmen kontua, zientzia kontua baizik. Erresilientzia gertatzen diren aldaketetara edo nahasmenduetara egokitzeko gaitasuna da. Horregatik, Legazpiko hirigintza-garapena planifikatu egin beharko da, gure udalerrria egokitu eta klima-mehatxuei eta horien ondorioei aurre egiteko gai izan dadin. Horretarako, hirigintza harmoniatsua aplikatuko dugu, hiri-espazio osasungarriak, ingurunea errespetatzen dutenak, pertsonekin eta naturarekin lagunkoiak direnak, gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen dutenak eta klima-aldaketak eragin ditzakeen ondorioetara etengabe egokitzen direnak berreskuratu edo sortu ahal izateko. Helburu hori lortzeko hiru ekintza ezarri ditugu:

- **Hiri-antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) eguneratu.**

Hiri-antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) udal-hirigintza planifikatzeko tresna da. Egungo Hiri-antolamenduko plan orokorra 2008koa da; beraz, etorkizuneko Legazpiki buruz hausnartu behar dugu. Lagunkoia ikuspegia txertatu, haurrak eta generoa babestu eta Legazpi berrantolatu iraunkortasunaren, klima-arintzearen eta klima-aldaketara egokitzearen irizpideetan oinarrituta, udalerrri irisgarria eta legazpiarren etorkizuneko beharretara egokituko den herria izan dadin. Etorkizuneko Legazpi herritarrekin, gizarte-erakundeekin, elkarrekin, enpresekin eta tokiko merkataritzarekin elkar lanean diseinatuko dugu.

- **Klima 2030 estrategia gauzatu.**

Legazpik 1998. urtean ekin zion iraunkortasunerako bideari, Aalborgeko gutuna sinatuta. Mugarri aipagarrienak honako hauek izan ziren: Agenda 21eko lehen plana 2001ean, klima-aldaketaren gaineko ordenantza 2009an, Compact of Mayors nazioarteko ekimenari atxikitzea 2015ean eta 2017an aho batez onartutako Klima 2030 Estrategia.

Klima 2030 Estrategiaren esparruan, hainbat jarduera egin dira dagoeneko, hala nola baso-kudeaketa jasangarrirako plana, hobekuntza-obrak drainatze jasangarrirako konponbideak txertatuz, haur-parkeko estalki naturala edo San Ignazioko kale nagusia hobetzeko obran naturan oinarritutako teknologiak erabiltzea.

Datozen bi urteetan, ildo horretan jarraituko dugu lanean, udalerriko ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-erronkei erantzuteko xedearekin, klima-aldaketa arintzen eta horretara egokitzen lagunduz.

- **Hiri-garapen integratua eta iraunkorra sustatu.**

Eremu publikoak hala nola parkeak, plazak, lorategiak edo espaloiak, udalerrri bateko harreman sozialak indartzen dituzten topaguneak dira. Horregatik, eremu publikoa legazpiarren interes indibidualak gainditzen dituzten premia kolektiboek erantzungo dien ingurune dinamiko, irisgarri, inklusibo eta lagunkoi gisa kontserbatu eta mantendu behar da. Espazio publikoak mantentzeko ere herritarren lankidetzak behar da.

- **Irisgarritasun-plana eta mugikortasun iraunkorreko plana garatu.**

2018an onartutako Legazpiko hiri-mugikortasun iraunkorreko Planak garraibideen erabilera koordinatua eta efizientea lortzeko estrategiak eta tresnak jasotzen ditu. Aipatu planak modu integralean heltzen dio udal mugikortasunaren arazoari 6 jarduera-ardatz handitan honako helburuarekin: Legazpiko joan-etorriak modu jasangarriagoan egin daitezzen sustatzea.

Legazpi, eskailera eta aldapa ugariz osatutako udalerrria da. Eskailera eta aldapa horiek Urola ibaitik gertu dauden beheko kaleak eta Gorostiaga mendiaren magalean eraikitako auzoak lotzen dituzte.

Traba arkitektoniko horiek, sarritan, zaildu eta eragotzi egiten dute minusbalotasunak edo mugikortasun murriztua duten pertsonak mugitzea.

- **Ondare publiko egokia eta hobetua**

- **Ondare publikoa zaindu, mantendu eta hobetu.**

Ondare publikoa udal-inbentarioan jasota dauden eraikinek, lokalek eta lursailek osatzen dute. Faktore askoren mende dago ondare horren kontserbazioa, eraikin eta lokalen ezaugarrien eta erabileren arabera.

Hori dela eta, Udalak udal eraikin eta lokal horiek kontserbatzeko, mantentzeko eta hobetzeko sistema bat diseinatu eta ezarri behar du, horien mantentzea eta kudeaketa energetikoa kudeatuz, iraunkorrak izan daitezen eta erosotasuna sor dezaten; finean, espazio horietatik ideiak sor daitezen herritar guztientzat.

- **Legazpiko natura-ondarea zaintzea**

Legazpik 42,1 kilometro karratuko azalera du; horietatik % 96 lurzoru urbanizaezina da, % 3,34 hiri-lurzorua eta % 0,61 lurzoru urbanizagarria. Urbanizaezina den lurzoruaren % 79 basoa da. Ondare horrek balio handia du, ez bakarrik nekazaritza-sektorearentzat, baita klima-aldaketa arintzen eta gure paisaia mantentzen laguntzen duelako ere.

Udalak Baso Kudeaketa Iraunkorreko Plana onartu zuen 2017an. Plan horren helburu nagusia basoen kudeaketa arduratsua, sozialki onuragarria eta ekonomikoki bideragarria egitea da. Plana datozen urteetan gauzatuko da.

Landa-ingurune biziari eusteak, Legazpiko landa-eremuan dagoen eten digitala murriztea eta tokiko produktuaren ekoizpena eta salmenta bultzatzea eskatzen du.

01 HELBURUA – LURRALDEA – HIRIGINTZA HARMONIATSUA ETA ERRESILIENTEA

01 EKINTZA– HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA EGUNERATU

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
1	PLANA IDATZIKO DUEN TALDEA KONTRATATU AURREKO LANAK						
	Baliabide propioak	Alkatea / Arkitektoa		■	■	■	
2	PLANA IDATZIKO DUEN TALDEA KONTRATATZEKO PROZESUA						
	250.000,00 €	Alkatea / AOT			■	■	
3	HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN AURRERAKINA PRESTATU						
	Baliabide propioak	Alkatea / Arkitektoa				■	■
4	HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BERRIKUSTEKO IZAPIDEAK						
	Baliabide propioak	Alkatea / Arkitektoa					■

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA

<p>5 IGUALDAD DE GÉNERO</p>  <p>Emakumeen ahalduntze politikoa sustatzea</p>	<p>10 REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES</p>  <p>Etxebizitza libre eta babestua sustatzea</p>
<p>11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES</p>  <p>Etxebizitzen birgaitzea eta hiri-erregenerazioa bultzatzea. Hirigintza-plangintza iraunkorra bermatzea</p>	<p>15 VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES</p>  <p>Ekosistemak eta haien zerbitzuak babestea, mantentzea eta leheneratzea, natura-ondarearen kudeaketa eraginkorra eta efizientea egitea, eta ezagutza eta kultura parte-hartzailea sustatzea. Etxebizitzen birgaitzea eta hiri-erregenerazioa bultzatzea eta hirigintza-plangintza iraunkorra ziurtatzea.</p>

HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA (HAPO) EGUNERATU

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) eguneratzeko, fase hauek behar dira:

1. Plana idatziko duen taldea kontratatu aurreko lanak.

Hiri-antolamenduko Plan Orokorra eguneratzeko prozesua luzea da eta beste administrazioekin eta diziplina anitzeko adituekin elkarlanean aritzea eskatzen du (soziologiatik hasi eta euskararen arlora arte).

Prozesuaren fase hori hasita dago, eta gure udalerraren egoerari buruzko txostenak eskatu behar zaizkie beste administrazio batzuei, hala nola Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, planaren jardueran eragina izan dezaketen edo jarduera baldintzatu ditzaketen faktoreak ezagutzeko.

Aipatu planak herritarrek parte-hartzeko prozesua ere zehaztea eskatzen du. Prozesu horren helburua Plan Orokorraren berrikuspena herritarren parte-hartze zabalarekin aberastea izango da, eta, horretarako, balioa eman behar zaie legazpiarrek nahi duten udalerrri motaren ikuspegiari eta kezkatzen dituzten hirigintza alderdiei.

2. Plana idatziko duen taldea kontratatze prozesua.

Hiri-antolamenduko Plan Orokorra eguneratzea prozesu korapilotsua da eta, horregatik, Udalak diziplina anitzeko taldea kontratatuko du, Legazpiren beharretara egokituko den kontratazio publikorako baldintza-agiri baten bidez. Plana idatziko duen taldearen ardura izango da Hiri-antolamenduko Plan Orokorra eguneratzeko prozesu luzea zuzentzea eta garatzea. Helburu horrekin, taldeak egin beharreko txostenak idatziko ditu, proposamenak eta alegazioak aztertu eta erantzungo ditu eta herritarrek parte hartzeko nahitaezkoak diren prozesuak diseinatu eta zuzenduko ditu.

3. Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerakina prestatu.

Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerakina planaren beraren lehen zirriborroa da eta horixe da herritarrei ezagutzera ematen zaiena. Prozesuaren fasea garrantzitsua da. Fase horretan herritarrek parte hartzeko prozesua gauzatzen da eta prozesu horretan herritarrek etorkizuneko Legazpiko hirigintzari buruzko ideiak eman edo adieraz ditzakete.

4. Hiri-antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko izapideak.

Aurrerakinaren fasea gainditu eta legazpiarren iritzia txertatu ondoren, Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren behin betiko testua egingo da eta, beraz, Udalbatzak onartuko duen dokumentua ez da Legazpiko errealitate sozialetik urrun dagoen dokumentua izango.

KLIMA 2030 ESTRATEGIA GAUZATU

1. **Naturan oinarritutako konponbideak aplikatu (drainatze iraunkorreko hiri-sistemak, estalki berdeak, zoladura berdeak,...)**

Naturan oinarritutako konponbideen helburua udalerrian egiten diren obretan natura imitatzea da, klima-aldaketak eragindako ondorioak arintzeko, hala nola euri-jasak edo bero-boladak. 2018an zehar, horrelako konponbideak udalerriko zein lekutan apikatu zitezkeen identifikatu zen.

Egindako proposamen batzuk dagoeneko martxan jarri dira, hala nola Latxartegiko haur-parkeko iragazte-hustulekua, Laubide auzoko haur-parkeko estalki naturala edo San Ignazio auzoko kale nagusiaren berrurbanizazioa. Datozen urteetan ildo horretan aurrera egiten jarraituko dugu.

2. **Hondakinen sorrera minimizatzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko kanpainak.**

Gauzak baztertu edo botatzen ditugunean sortzen dira hondakinak. Ekonomia zirkularra naturan oinarritutako estrategia da. Estrategia horren arabera, ez da ezer pilatzen, eraldatu eta berrerabili baizik.

Horregatik, Trukegune bezalako ekimenekin nahi ez ditugun gauzak beste herritarrekin partekatzen baditugu, hobeto bereiziko ditugu gure etxeetan sortzen ditugun hondakinak eta, modu horretan, hondakin horiek ez dira zabortegira iritsiko; edo litxarrerria-poltsak zakarrontzietan behar bezala uzten baditugu, ibaira eta handik itsasora iristea saihestuko dugu.

Hori guztia posible izan dadin, ohiturak, jokabideak eta jarrerak aldatu behar ditugu, eta, horretarako, ingurumenarekiko sentsibilizazio-kanpainak egingo ditugu. Planeta babesteko lana Legazpi babestetik hasten da eta, horretarako, ezinbestekoa da legazpiar guzti-guztien eta bakoitzaren lankidetzeta eta parte-hartzea.

3. **Udal iraunkortasun energetikoaren plangintza egin.**

Larrialdi klimatikoan gaude, eta energiaren eta klima-aldaketaren arteko lotura oso handia da. Energia fosilen kontsumoak eragin du klima berotzea. Klima-aldaketa geldiarazteko modu bakarra energiaren kontsumo-ereduak aldatzea da. Hori dela eta, Legazpiko Udalak energiaren eta klimaren arteko binomioa lantzen jarraituko du datozen lau urteetan, arazo global handi horri irtenbidea ematea ahalbidetuko duten tokiko irtenbideak planifikatzeko.

4. **Erosketa eta kontratazio publikoaren konpromisoak bete.**

2018an, Legazpiko Udalak bat egin zuen Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen programarekin. Legazpiko Udalak erosketa eta kontratazio berdearen eta berritzailearen irizpideak integratzeak euskal ekonomia lehiakorragoa eta ingurumenarekiko arduratsuagoa sendotzen lagunduko du.

01 HELBURUA – LURRALDEA – HIRIGINTZA HARMONIATSUA ETA ERRESILIENTEA

03 EKINTZA– HIRI-GARAPEN INTEGRATUA ETA IRAUNKORRA SUSTATU

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA																
			2019	2020	2021	2022	2023												
1	GURE AUZOAK ZAINDU ETA HOBETU																		
	2.000.000,00 €	Alkatea / Arkitekto- Arkitekto teknikoa	■	■	■														
2	PARTE-HARTZE BIDEZKO AURREKONTUAK																		
	1.200.000,00 €	Alkatea / Lurraldeko koordinatzailea		■				■				■							
3	ESPAZIO PUBLIKOA EBALUATZEKO SISTEMA EZARRI																		
	Baliabide propioak	Alkatea / Arkitekto teknikoa										■	■	■	■				
4	LAGUNKOIA DIAGNOSTIKOAN JASOTAKO PROPOSAMENAK LEHENETSI																		
	Baliabide propioak	Alkatea / Arkitekto teknikoa										■	■	■					

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA

 <p>11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES</p> <p>Etxebizitzaren birgaitzea eta hiri-erregenerazioa bultzatzea eta kultura parte-hartzailea sustatzea</p>	 <p>16 PAZ, JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS</p> <p>Kontuak emateari, gardentasunari eta informazioa eskuratzeari heltzen die</p>
--	---

HIRI-GARAPEN INTEGRATUA ETA IRAUNKORRA SUSTATU

1. Gure auzoak zaindu eta hobetu.

Legazpiko hiri-egitura duela 70 urte eraiki zen, eta beharrezkoa da egitura hori egokitzea, adibidez, joan den mendebaldean eraikitako traba arkitektonikoak kentzeko, aireko kableak lurperatzeko edo ur-hodiak berritzeko. Hori dela eta, aurreko legealdian, inbertsio-politika aldatzea erabaki zuen Gobernu-talde berriak eta udalerriko erdialdeko eremuetan obra gutxi eta handiak egin ordez, gure auzoetan hobekuntza-lan txiki asko egiteko politika ezarri zuen. Horrezaz gaiz, ikuspegi urbanistiko berria ezarri zuen, hirigintza-modernizaziorako irizpideak, ingurumen-irizpideak eta genero-irizpideak barne hartzen dituen, bakoitzaren gizarte-premia berezietan erantzuteko.

2. Parte-hartze bidezko aurrekontuak.

Aurreko legealdiaren hasieran, egin beharreko urteko inbertsio-proiektuak aukeratzekoan, herritarren parte-hartzea sustatzeko baliabideak areagotzearen aldeko apustua egin zuen gobernu-taldeak. Eta hau da parte hartzeko aukeraturako bidea: legazpiar guztiei inbertsio-proposamenak aurkezteko dei egiten zaie; ondoren udal teknikariek jasotako proposamenak aztertzen dituzte eta herritarren artean bozkatuko diren proiektuak proposatzen dituzte.

Horrela egiteak herriko ia auzo guztietan hobekuntza-lanak egitea eta udal-garapen orekatua lortzea ahalbidetu du. Covid-19ak eragin duen pandemiak sorrarazitako krisi ekonomikoak 2020ko udal-aurrekontua nahasi du, eta urte horretarako aurreikusitako inbertsioak moteltzera behartu du. Beraz, parte-hartze bidezko aurrekontuen dinamika horri berriro ekingo zaio egin gabe dauden inbertsioak egin eta gero.

3. Espazio publikoa ebaluatzeko sistema ezarri.

Udal teknikariak espazio publikoen kalitatea etengabe hobetzen saiatzen dira eta egin behar horretan zentratzen dira, eremu horietan garatzen baitira jardura kolektibo ugari. Ekintza honen bidez, herritarren bizitzarako espazio publikoen kalitatea ebaluatzeko sistema bat ezarri nahi da. Horretarako, kalitate-adierazleak definituko dira, espazio horien kalitate fisikoaz gain, balio soziokulturalak ere ebaluatu ahal izateko, hala nola gizarte-harremanen intentsitatea eta kalitatea.

4. Lagunkoia diagnostikoan jasotako proposamenak lehenetsi.

2016an Legazpi Lagunkoia diagnostikoa egin zen. Bertan, gure udalerriarren adiskidetasun-maila neurtu eta aztertu zen 8 arlotan: garraioa, etxebizitza, parte-hartzea eta gizarte-ehuna, errespetua eta inklusioa, herritarren parte-hartzea eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, gizarte- eta osasun-zerbitzuak eta aire libreko espazioak eta eraikinak. Datozen urteetan egindako proposamenen betetze-maila ebaluatuko da eta geratzen diren proposamenak lehenetsiko dira.

01 HELBURUA – LURRALDEA – HIRIGINTZA HARMONIATSUA ETA ERRESILIENTEA

04 EKINTZA– IRISGARRITASUN-PLANA ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLANA GARATU

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
1	APARKALEKU-BEHARRAK PLANIFIKATU						
	Baliabide propioak	Zinegotzi ordezkaria / Udaltzainburua					
2	BIIKLETA IBILBIDEARI JARRAIPENA EMAN MUGIKORTASUN PLANAREN ARABERA						
	150.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Udaltzainburua					
3	JUNETORRI ZERBITZUA BERRITU, IBILGILU JASANGARRIA EZARRIZ						
	1.000.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Udaltzainburua					
4	IBILGAILUEN AUZOEARAKO SARBIDEAK OPTIMIZATU						
	300.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Udaltzainburua					
5	BIDE PUBLIKOETAN IRISGARRITASUNA HOBETU						
	500.000,00 €	Alkatea / Arkitekto teknikoa					

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA



Ohitura eta bizimodu osasungarriak eta mugikortasunarekin eta garraioarekin lotutako guztia sustatzean jartzen du arreta



Kutsadura atmosferikoaren arriskuak ezagutzea, kontrolatzea eta prebenitzea, eta kultura sustatzea

IRISGARRITASUN-PLANA ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLANA GARATU

1. **Aparkaleku-beharrak planifikatu.**

Legazpin etengabe ari da gora egiten ibilgailuen kopurua, aparkalekuen kopurua handitzen ez den bitartean. Bestetik, gure udalerriko aparkaleku-premiak desberdinak dira egunez eta gauez, gure udalerritik kanpo lan egiten duten pertsonen kopurua handia delako. Aurreko legealdian, paper-fabrikako aparkalekua egokitu zen eta, bertan, 100 aparkaleku-plaza sortu ziren, industrialdean lan egiten duten langileek eta hiriguneko herritarrek euren ibilgailuak aparkatzeko. Datozen urteetan, arazo hori arintzeko konponbideak eta txandakatzeko-alternatibak bilatzen jarraituko dugu.

2. **Bizikleta ibilbideari jarraipena eman Mugikortasun Planaren arabera.**

Legazpiko bizikleta mugikortasuna bi ibilbiderekin definitu da: Legazpi eta Zumarraga lotzen dituen kanpoko ibilbidea eta barneko ibilbidea. Bi ibilbideak etenak direnez, datozen urteetan biibilbideri jarraipena emateko lan egingo da. Horrela, adibidez, Zumarragatik datorren kanpoaldeko bidegorria Santikutz kalearekin lotuko da Zaldu auzotik edo Kultur Etxeko igogailutik San Ignazio auzorantz joango den bizikletentzako ibilbide bat sortuko da.

3. **Junetorri zerbitzua berritu, ibilgailu jasangarria ezarriz.**

Junetorri zerbitzua 2012an jarri zen martxan 10 urtetarako kontratu batekin; beraz, 2022an berritu egin beharko da zerbitzu horren kontratazioa. Klima-larrialdiko egoeran gaude, eta badakigu garraioa dela berotegi-efektuko gasen isurketak bizkorren hazten dituen sektorea; eta badakigu halaber, gas horiek eragina dutela klima-aldaketan. Horregatik, gobernu-taldeak, klimaren alde ekiteko hartu duen konpromisoa betetz eta eredugarritasun-printzipio etikoa aplikatuz, Junetorri zerbitzua egun eskaintzen den ibilgailuarekin eskaini ordez ibilgailu jasangarriagoarekin eskaintzea sustatuko du.

4. **Ibilagiluen auzoetarako sarbideak optimizatu.**

Legazpiko hirigunea luzera hedatzen da, eta barruko bide-sareak, gutxi gorabehera, 4 kilometroko luzera du. Saihesbide bat dugu, gure udalerriko auzoetara sartzea ahalbidetzen duena baina erabilera hori indartu egin behar dugu ibilgailuen barne-zirkulazioa murrizteko, saihesbidetik San Ignazio auzora iristeko sarbidea hobetuz, adibidez.

5. **Bide publikoetan irisgarritasuna hobetu.**

2012an, hiri-espazio publikoetan dauden hirigintza- eta arkitektura-oztopoei buruzko azterketa bat egin zen. Harrezkero, Udalak egindako obra bakoitzean azterketa horretan proposatutako irisgarritasun-neurriak ezarri dira. Datozen urteetan, azterketaren betetze-maila neurtuko da eta etorkizuneko hobekuntza-proposamenekin azterketa berri bat egin beharra dagoen aztertuko da.

02 HELBURUA– LURRALDEA – ONDARE PUBLIKO EGOKIA ETA HOBETUA

01 EKINTZA– ONDARE PUBLIKOA ZAINDU, MANTENDU ETA HOBETU

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA											
			2019	2020	2021			2022			2023			
1	ERAIKIN PUBLIKOAK MANTENTZEKO KUDEAKETA-SISTEMA BAT DISEINATU ETA EZARRI													
	Baliabide propioak	Alkatea / Arkitekto teknikoa												
2	UDAL ONDARE PUBLIKOA KUDEATZEKO SISTEMA BAT DISEINATU ETA EZARRI													
	Baliabide propioak	Alkatea / Idazkaria												
3	UDAL ERAIKIN PUBLIKOETAN IRISGARRITASUNA HOBETU													
	500.000,00 €	Alkatea / Arkitektoa												

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA



7 ENERGIJA ASEQUIBILE Y NO CONTAMINANTE
Kontsumoa arrazionalizatzea eta energia-eraginkortasuna handitzea



11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES
Eraikinen birgaitzea bultzatzea

ONDARE PUBLIKOA ZAINDU, MANTENDU ETA HOBETU

1. Eraikin publikoak mantentzeko kudeaketa-sistema bat diseinatu eta ezarri.

Hirigintzako udal zerbitzuak egiten ditu eraikin publikoen mantentze-lanak, prebentzioko eta zuzentzeko mantentze-lanak eginez. Datozen urteetan eraikinen mantentze-lanen kudeaketa sistematizatu nahi da, egin beharreko lanak planifikatuz eta kontrolatuz, eta modu horretan lan eraginkorra lortu.

2. Udal-ondare publikoa kudeatzeko sistema diseinatu eta ezarri.

Legazpiko udal-ondare publikoa bere jabetzakoak diren eraikin publikoek eta lokalek osatzen dute. Ondare hori inbentariatuta dago, eta haren kontserbazioa faktore askoren mende dago, hala nola eraikinen eta lokalen ezaugarrien mende.

Datozen urteetan, ondare hori guztia kudeatzeko sistema bat diseinatuko eta ezarriko da, gerta daitezkeen ondare-aldaketei buruzko informazio guztia eskuratu ahal izateko.

3. Udal eraikin publikoetan irisgarritasuna hobetu.

2012an, udal erikin publikoetan dauden hirigintza- eta arkitektura-oztopoei buruzko azterketa bat egin zen. Bertan, eraikin publikoetan oztopo arkitektonikoekin dauden arazoak aztertu eta katalogatu ziren. Horrezaz gain, jarduteko lehentasunak ezarri ziren.

Harrezkero, hainbat urte igaro dira, eta proposatutako esku-hartze gehienak egin dira dagoeneko; beraz, datozen urteetan, egoeraren beste azterketa bat egin beharko da, eraikin publikoen irisgarritasuna hobetzeko jarduketa gehigarriak identifikatu ahal izateko.

02 HELBURUA– LURRALDEA – ONDARE PUBLIKOA EGOKIA ETA HOBETUA

01 EKINTZA– LEGAZPIKO NATURA-ONDAERA ZAINTEA

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA						
			2019	2020	2021	2022	2023		
1	TOKIKO PRODUKTUEN EKOIZPENA ETA SALMENTA SUSTATZEKO KANPAINAK								
	25.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Nekazaritzako teknikaria							
2	BASOEN KUDEAKETA IRAUNKORREKO PLANA GAUZATU, BIODIBERTSITATEA SUSTATUZ								
	20.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Nekazaritzako teknikaria							
3	HIRI-BARATZEAK SORTZEA SUSTATU, KOHESIO-TRESNA GISA								
	50.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Nekazaritzako teknikaria							
4	MUGEN DIGITALIZAZIOA AMAITU								
	30.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Nekazaritzako teknikaria							

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA



2 HAMBRE CERD
Nekazaritza- eta abeltzaintza-produktibitatea hobetzea eta jarduera ekologikoak bultzatzea, hazi eta landare autoktonoen bankuak dibertsifikatzea, eta autokontsumorako baratzeak eta tokiko ekoizpena sustatzea



15 VIDA DE ECOSISTEMAS TERRESTRES
Natura-ondarearen kudeaketa eraginkorra eta efizientea eta naturaren ezagutza eta kultura sustatzea, bai eta basoen kudeaketa iraunkorra ere

LEGAZPIKO NATURA-ONDAREA ZAINDU

1. Tokiko produktuen ekoizpena eta salmenta sustatzeko kanpainak.

Azken urteotan tokiko produktuaren kontsumoa bultzatu da UGGASAk, Udalarekin elkarlanean, sustatu duen Bertatik-Bertara ekimenaren bidez.

Datozen urteetan, nekazaritza eta elikagaien sektoreari aplikatu dakizkiokeen ekonomia zirkularreko estrategiak ezarri nahi dira, elikadura zirkularra deiturikoak. Estrategia horiek produktu galkorren xahuketa murriztea eta elikagaien garraioari lotutako kutsadura murriztea ahalbidetuko dute eta horrek balio erantsia emango dio gure baserrietako eta, oro har, euskal baserrietako elikagaien ekoizpenari.

2. Basoen Kudeaketa Iraunkorreko Plana gauzatu biodibertsitatea sustatuz.

Legazpiko baso-azalera udalerrriaren azalera osoaren % 80 hartzen du eta horretatik % 80 titulartasun pribatukoa da eta % 21 titulartasun publikokoa. Baso-azalera horretatik, % 72 espezie koniferoek osatzen dute eta % 8 hostozabalek.

2017an, baso-kudeaketa iraunkorreko plan bat egin zen, 45 hektareako azalera bati eragiten diona. Azalera hori udal-titulartasun publikoko basoei dagokie, eta udalaren eskumena da horiek kudeatzea. Pinua kentzeko aukeren artean, hostozabalak landatzea, larreak sortzea edo, are gehiago, bakanketak egitea aurreikusten da, lurrari itzala ematen dioten zuhaitzak utziz.

3. Hiri-baratzeak sortzea sustatu, kohesio-tresna gisa.

Hiri-baratzeak autokontsumorako barazkiak ekoizteko proiektu komunitario gisa ulertzen dira. Proiektu horiek mesede egiten diote gizarteratzeari, ingurumena hobetzeari eta espazio degradatuak berreskuratzeari; are gehiago, ingurumen-hezkuntzako tresnatzat hartzen dira.

Hiri-baratzeak topaguneak sortzeko lekuak dira, eta, aldi berean, beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko eremuak indartzen dira.

4. Mugen digitalizazioa amaitu.

2014an jarri zen martxan mugak digitalizatzeko proiektua, Gipuzkoako Basozainen Elkartearekin elkarlanean. Proiektu horretan, lursailen jabe guztiek parte hartu eta lagundu behar dute. Jabe bakoitzak bere lursailen mugarriak aurkitu behar ditu, eta, jabe mugakideekin baieztatu ondoren, beharrezko garbiketa egin behar du, ondoren digitalizatu ahal izateko neurketak egiteko.

Aurreko legegaldian zehar lursailen % 75 digitalizatu da eta datozen urteetan mugak digitalizatzeko lanak amaitu nahi dira.

HERRITARRAK

Arlo honetan ondoko zerbitzuak sartzen dira:

- **Gizartekintza, Berdintasuna eta Lankidetz**
- **Kultura eta jaiak**
- **Euskara eta Euskaltegia**
- **Kirola**
- **Industria, Merkataritza eta Turismoa**
- **Hautzaroa, nerabezaroa eta gazteria**
- **Hezkuntza**

Legazpiko Udaleko Herritartasun arloak hiru helburu estrategiko handiren inguruan egituratu du bere esku hartzea Gobernu-planean: arreta, babesa eta garapen sozial berritzailea bermatzea, gizarte euskalduna, aktiboa eta parte-hartzailea sustatzea eta garapen sozioekonomikoaren alde egitea.

Helburu horietako bakoitzean hura lortzea ahalbidetuko duten ekintza, zeregin edo proiektu zehatzak jasotzen dira.

- **Arreta, babesa eta garapen sozial berritzailea bermatzea;** Prestazio eta zerbitzuen hornidura eraginkorra funtsezkoa da gizarte-ekintza gauzatzeko. Erabiltzaileek eta haien familiek behar duten arreta eta zaintza jaso behar dute era progresiboan, kasu bakoitzean jasandako narriaduraren bilakaeraren arabera. Horrek esan nahi du pertsonen benetako premietara egokitu behar dela eskaintza. Horretarako, garrantzitsua da legazpiarrek dauden zerbitzuei buruzko informazio osoa eta eguneratua izatea. Modu berean, nahitaezkoa izango da etorkizuneko premiei aurrea hartzea, eta egungo baliabideak gizarte-proiektu berritzaileen bidez egokitzea. Aurreko guztia Legazpiko elkarte-sarearekin lankidetzan egingo da, elkarteak ezinbestekoak baitira administrazio publikoarekin batera lan egiteko.
 - **Arretarako eta babes sozialerako egungo eredia ezagutzera eman.**

Legazpi aitzindaria izan da hainbat gizarte-zerbitzu sortzen eta abian jartzen. Ibilbide hori eutsi eta indartu egin du egungo gobernu-taldeak, 2018an eguneko arreta-zerbitzu berri bat sortuta, gizarte-larrialdietarako etxebizitza abian jarrita eta Bellotako pentsio zaharraren eraikina erosita. Gure ustez, beharrezkoa da dagoen zerbitzu-eskaintza zabaltzea, eta, horretarako, zerbitzu horien katalogo bat egingo dugu.

- **Arretarako, babeserako eta gizarte-garapen berritzaileko eredu berri bat diseinatu.**

10 urteren buruan, gure udalerriko biztanleen % 45ek 65 urte baino gehiago izango ditu, gaur egungoaren oso profil desberdinarekin. Horrek paradigma aldatzea ekarriko du biztanleriaren zahartzearen tratamenduan eta dauden prestazioak egokitu beharko dira eta gizarte-baliabide berriak diseinatu.

Horretarako, aurreko legegintzaldia amaitzeko zela, Gobernu-taldeak Bellotako pentsio zaharra erostea bultzatu zuen, eta 2020. urtearen amaieratik Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Adinberri Fundazioak sustatutako “belaunaldien arteko Legazpi” proiektuan parte hartzen du. Proiektu horren helburua belaunaldien arteko espazioak eta erabilerak sortzea da, belaunaldien arteko lankidetzak, ekimena eta elkartasuna indartuz.

- **Izaera sozialeko elkarte eta erakundeekiko lankidetzak-eredua indartu**

Gizarte-arreta eta -babes egokia izateko, baliabide ekonomikoak eta teknikariak behar dira, baina baita gizarte-erakundeen eta -elkarteen lankidetzak ere. Legazpiko gizarte-elkarteen sarea oso indartsua eta lan egiteko prestua da, eta, horregatik, lankidetzak hori indartzeko lan egingo dugu, elkarteen lanari balioa emanez.

- **Gizarte euskalduna, aktiboa eta parte hartzailea sustatzea:** Gizartea gero eta anitzagoa eta kulturantzunagoa da. Euskararen erabilera sustatu behar dugu udalerriko arnagune guztietan, integratzearako tresna gisa, euskararen erabilera normalizatuz eguneroko jardueretan.

Era berean, hezkuntza, kirola eta kultura hartu behar ditugu kontuan gizartea eraldatzeko motor gisa, herritarren eta Legazpiko gizarte-eragilearen parte-hartzeari balioa emanez.

- **Udal Hizkuntza Politikarako Plana betearazi.**

Legazpin % 68koa da euskararen ezagutza-maila. Aldiz, euskararen erabilera-maila % 33koa da. Horretarako, hainbat neurri sustatu dira, 65 urtetik gorakoei eta migratuei euskara doan irakastea adibidez.

Legazpi euskalduna lortzeko bi erronka ditugu: alde batetik, euskararen ezagutza handitzea, udal euskaltegian euskalduntze-programa desberdinak eskainiz eta, bestetik, euskararen erabilera sustatzea herriko arlo guztietan.

Erronka horiei aurre egiteko, arnaguneak sortu behar dira, hainbat eremutako tokiko eragile guztien laguntzarekin: denbora libreko eragileak, kirol arlokoak, kulturalak, sozialak,...

- **Kultura-, kirol- eta gizarte-jardueren eskaintza optimizatu, herritarren parte-hartzea sustatuz.**

Legazpik gure nortasun-ezaugarriak indartzen dituen kultura-jardueren eskaintza bat du, pertsonen ongizatean eragiten duen kirol-jardueren eskaintza bat eta gizarteratzea sustatzen duen gizarte-jardueren eskaintza bat. Datozen urteetan, egungo eskaintza optimizatuko dugu, pertsonak gure udalerriaren garapenaren protagonista izan daitezen sustatuz, aukera-berdintasuna, genero-berdintasuna eta gizarteratzea bermatuz ingurune euskaldun batean.

- **Garapen sozioekonomikoa bultzatzea:** Legazpi batez ere udalerrri industrial da, eta hala izaten jarraitzea nahi dugu, uste baitugu sortutako aberastasuna ezinbestekoa dela udalerriaren garapen sozioekonomikorako, eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzea ahalbidetzen duela.

Era berean, merkataritza, zerbitzuak eta ostalaritza balio handiko jarduera ekonomikoak dira, garrantzi soziala dutelako eta hiri-bizitza egituratzeko gaitasuna dutelako. Horien garrantzia balioesten dugu, baita hurbileko zerbitzuena ere, bilatzen dugun udalerrri aberats, atsegin, seguru eta bizikidearen ereduari ekarpen handia egiten diotelako.

Azkenik, gure udalerriaren interes turistikoa nabarmendu behar da; horregatik, jarduera hori sustatzen duten formulak aztertuko ditugu, udalerrian duen eragin ekonomikoa neurtuz.

- **Tokiko merkataritza eta ostalaritza eta hurbileko zerbitzuak indartu.**

Saltoki handietan eta Interneten egindako erosketek gogor mehatxatzen dituzte Legazpiko merkataritza eta hurbileko zerbitzuak. Eta horri, bizi dugun pandemiak sortutako egoera gehitu behar zaio. Aurreko legealdian tokiko merkataritza biziberritzeko Plana (PERCO) onartu zen eta plan hori izango da gure merkataritza biziberritzeko erabiliko dugun tresna. Hori dela eta, plan hori betetzeko lanetan zentratuko gara, tokiko merkataritzan egindako lana aitortzeko sari bat sortuko dugu eta laguntza-ildoak bultzatzen jarraituko dugu. Bestalde, ostalaritza aurrekaririk gabeko krisia ari da jasaten eta, beraz, tasa, bonu eta abarren salbuespenekin laguntzen jarraituko dugu.

- **Ideien laborategia martxan jarri.**

Etorkizuneko Legazpik kalitatezko enplegua sortuko duten enpresak behar ditu, hurbileko merkataritza behar du eta garraio publikoko sare moderno eta iraunkorra. Horregatik, legealdi honetan enpresa berriak ezartzeko aukera emango duten erronka sozioekonomikoei buruz hausnartu behar dugu, ideien laborategi bat sortzea bultzatuz; adibidez, enpresa berriak ezar daitezke Sidenor enpresa zegoen eremuan edo jarduerarik gabeko beste industria-eremu batzuetan.

001 HELBURUA– HERRITARRAK – ARRETA, BABESA ETA GIZARTE-GARAPEN BERRITZAILEA BERMATZEA

01 EKINTZA– ARRETARAKO ETA BABES SOZIALERAKO EGUNGO EREDUA EZAGUTZERA EMAN

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA																
			2019	2020	2021	2022	2023												
1	GIZARTE ZERBITZUETAKO EGUNGO KATALOGOAREN BERRI EMATEKO PLANA DISEINATU																		
	Baliabide propioak	Zinegotzi ordezkaria / Gizarte-langilea																	
2	GIZARTE ZERBITZUETAKO EGUNGO KATALOGOAREN BERRI EMATEKO PLANA GARATU																		
	250.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Gizarte-langilea																	

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENAK



Gardentasunari eta informazioa eskuratzeari heltzen die



Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna

ARRETARAKO ETA BABES SOZIALERAKO EGUNGO EREDUA EZAGUTZERA EMATEA

1. Gizarte Zerbitzuetako egungo katalogoaren berri emateko plana diseinatu.

Legazpiko Gizarte Zerbitzuek katalogo zabala dute, erabiltzaileei eta haien familia askori estaldura ematen diena. Baina pertsona batzuek ez dituzte Legazpiko zerbitzu eta baliabide soziosanitarioak ezagutzen. Horregatik, horri buruzko komunikazio-plan bat diseinatu behar da.

2. Gizarte Zerbitzuetako egungo katalogoaren berri emateko plana garatu.

Komunikazio-plana diseinatu ondoren, hura gauzatzeari ekingo diogu. Horretarako, nahitaezko baliabideak erabiliko ditugu planaren berri legazpiar guztiek izan dezaten eta, batik bat, etorkizunean udaleko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile izan daitezkeen pertsonak eta familiek.

01 HELBURUA– HERRITARRAK – ARRETA, BABESA ETA GIZARTE-GARAPEN BERRITZAILEA BERMATZEA

02 EKINTZA– ARRETARAKO, BABESERAKO ETA GIZARTE-GARAPEN BERRITZAILERAKO EREDU BERRIA DISEINATU

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA											
			2019	2020	2021	2022	2023							
1	GIZARTE-GARAPEN BERRITZAILEKO EREDUAK AZTERTU													
	15.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Arloko koordinatzailea												
2	ARRETARAKO ETA BABES SOZIALERAKO EREDU BERRIA DEFINITU													
	1.700.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Gizarte-langilea												
3	ARRETARAKO ETA BABES SOZIALERAKO EREDU BERRIA EGUNERATU ETA KOMUNIKATU													
	Baliabide propioak	Zinegotzi ordezkaria / Gizarte-langilea												

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA

 <p>1 FIN DE LA POBREZA</p> <p>Hainbat gai jorratzen ditu, hala nola pobrezia eta hainbat kolektiboren zurgarritasuna, zahartze aktiboa, gizarte-baliabideetarako sarbidea edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako prestazioak</p>	 <p>3 SALUD Y BIENESTAR</p> <p>Emakumeen eta gizonen bizi-itxaropenean jartzen du arreta</p>
 <p>5 IGUALDAD DE GÉNERO</p> <p>Eragile guztiak inplikatzeko, gizarte-eredu iraunkorrago eta berdinzaleago bat lortzen laguntzeko</p>	 <p>10 REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES</p> <p>Herritar guztien gizarteratze sozial, ekonomiko eta politikoa sustatzea</p>
 <p>11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES</p> <p>Udalerrian mendekotasun-mailaren bat duten pertsonak, egoitzazentroetako eta eguneko zentroetako plazak</p>	 <p>17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS</p> <p>Beste erakunde batzuekiko koordinazioa eta sareko lana indartzea eta jarduera solidarioa sustatzea</p>

ARRETARAKO, BABESERAKO ETA GIZARTE-GARAPEN BERRITZAILERAKO EREDU BERRIA DISEINATZEA

1. Gizarte-garapen berritzaileko ereduak aztertu.

Biztanleriaren zahartzeak, bakardadeak eta gizarte-bazterketak, besteak beste, gizartea eraldatzea eragiten dute eta, horrek egungo gizarte-garapen berritzailearen ereduak aztertzerara eta zaintza-formula berriak aztertzerara garamatza, azterketa prospektibo baten bidez.

2. Arretarako eta babes sozialerako eredu berria definitu.

Prospekzioa egin eta emaitzak ezagutu ondoren, legazpiarren premia berriak ezagutu behar ditugu, eta arreta eta babes sozialeko gure eredu definitu.

3. Arretarako eta babes sozialerako eredu berria eguneratu eta komunikatu.

Prestazio eta zerbitzu berriak lehendik daudenei gehituko zaizkie eta horiekin guztiekin legazpiarren premietara egokituko den katalogo berria osatuko dugu, berritua eta eguneratua. Oso garrantzitsua da katalogo berria komunikazio-kanpaina baten bidez ezagutaraztea.

IZAERA SOZIALEKO ELKARTE ETA ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZA-EREDUA INDARTZEA

1. Izaera sozialeko elkarte eta erakundeekin lankidetzan aritzeko egungo eredia aztertu

Legazpiarrek osatzen duten elkarte-sarea funtsezko pieza da, baita gizarte-eremuan ere, toki-administrazioarekin batera lan egitea indartzeko, lankidetzan, elkartasunean eta parte-hartzean oinarrituta. Gaur egungo lankidetzaren eta haren indarguneen eta ahulguneen azterketa sakona egin behar dugu.

2. Lantaldea tokiko erakunde eta elkarten lan komunitariorako gune gisa sendotu.

Gizarte-arloko lana duela aspalditik egiten da toki-administrazioaren eta gizarte-erakunde eta -elkarten artean.

Aurreko legegintzaldian Lantaldea jarri zen martxan, komunitate-lanerako gune gisa. Datozen urteetan, eredu hori sendotuko dugu, udalerriko gizarte-politikak garatzeko tresna gisa duen balioagatik.

3. Sari bat sortu, gizarte-arloan egindako lana aitortzeko.

Kultura eta kirol arloetan egiten den bezala, beharrezkoa da eremu sozialean laguntzen duten pertsonen eta/edo erakundeen lana sari baten bidez aitortzea, pertsona edo erakunde horiek egiten duten lan altruista balioesteko eta eskertzeko.

UDAL HIZKUNTZA POLITIKARAKO PLANA BETEARAZTEA

1. Legazpiko eguneroko bizitzan euskararen erabilera sustatzeko planak garatu (kirola, kultura,...)

Legazpik Euskara Sustatzeko Ekintza Plana du onartuta 2018-2022 epealdirako eta bertan jasotako ekintzak eta zereginak gauzatu behar ditugu.

2. Belaunaldien arteko topaguneetan euskara indartu.

Gure udalerrian dagoeneko badaude belaunaldien arteko topaguneak, hala nola Euskategiko Mintzalagun taldeak eta ikastetxeetako ikasleen eta mendekotasuna duten pertsonentzako arreta-zerbitzuen artean jarduera komunak egiten dituzten taldeak (zaharren egoitza edo Tipi Tapa).

Datozen urteetan, espazio horietan erabiliko den ohiko hizkuntza euskara izan dadin bultzatuko da.

3. Kulturen arteko topaguneetan euskara erraztu.

Egungo errealitateak eta epe labur eta ertaineko etorkizunak adierazten digu gizartea gero eta askotarikoagoa eta kulturantzunagoa dela eta izango dela. Euskara bizikidetzaren eta gizarte-kohesioaren errazteko bitarteko gisa hartu behar da eta euskara ikastea eta erabiltzea bultzatu.

02 HELBURUA– HERRITARRAK – GIZARTE EUSKALDUNA, AKTIBOA ETA PARTE HARTZAILEA SUSTATZEA

02 EKINTZA– HERRITARREK PARTE HARTZEN DUTEN KULTURA-, KIROL- ETA GIZARTZE-JARDUEREN ESKAINTZA OPTIMIZATU

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
1	KULTURA-, KIROL- ETA GIZARTE-JARDUEREN ESKAINTZA AZTERTU						
	Baliabide propioak	Zinegotzi ordezkariak / Zerbitzuko teknikariak					
2	KULTURA-, KIROL- ETA GIZARTE-ERAGILEEKIN LANKIDETZAN ARITZEKO EREDUARI BURUZ HAUSNARTU						
	Baliabide propioak	Zinegotzi ordezkariak / Zerbitzuko teknikariak					

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENA

<p>4 EDUCACIÓN DE CALIDAD</p>  <p>Udalerriko kultura-jarduerak eta kultura-ehuna dinamizatzea, eta herritar guztiek hezkuntza-, kultura- eta kirol-ekipamendu eta -zerbitzuetara sarbidea dutela bermatzea</p>	<p>11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES</p>  <p>Kultura parte-hartzailea sustatzea</p>
<p>17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS</p>  <p>Beste erakunde batzuekiko koordinazioa eta sareko lana indartzea eta jarduera solidarioa sustatzea</p>	<p>18</p>  <p>DIVERSIDAD LINGÜÍSTICA Y CULTURAL</p> <p>Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna</p>

HERRITARREK PARTE HARTZEN DUTEN KULTURA-, KIROL- ETA GIZARTE-JARDUEREN ESKAINTZA OPTIMIZATZEA

1. **Kultura-, kirol- eta gizarte-jardueren eskaintza aztertu.**

Kultura-, kirol- eta gizarte-eskaintza oso zabala da, eta elkarreak asko inplikatzen dira beren antolaketan. Egungo eskaintza aztertu behar dugu egoerari buruzko informazio erreal eta osoa lortzeko, dauden hobekuntza-aukerak identifikatze aldera.

2. **Kultura-, kirol- eta kultura-eragileekiko lankidetzaren ereduari buruz hausnartu.**

Beharrezkotzat jotzen dugu egungo lankidetzaren ereduari buruzko gogoeta egitea eta eredu horren indarguneak eta ahulguneak ezagutzea, herritarrek parte hartzen duten kultura-, kirol- eta gizarte-jardueren eskaintza optimizatzeko.

03 HELBURUA – HERRITARRAK – GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA BULTZATZEA

01 EKINTZA – TOKIKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUAK INDARTU

	AUREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
1	MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLAN BEREZIA (PERCO) GAUZATU						
	120.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Zerbitzuko teknikaria					
2	TURISMOAK UDALERRIAN DUEN ERAGIN EKONOMIKOA NEURTU						
	Baliabide propioak	Zinegotzi ordezkaria / Zerbitzuko teknikaria					
3	SARI BAT SORTU, MERKATARITZAN EGINDAKO LANA AITORTZEKO						
	3.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Zerbitzuko teknikaria					

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENAK



8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO
Kultura ekintzailean, berrikuntzan eta enpresa-ehunaren ingurumen-kalitatean oinarritutako garapen ekonomikoa. Gizarte-ekonomia eta turismo jasangarria ere sustatzen ditu. Gazte langabeentzako ekintzak zuzentzea ere planteatzen du



11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES
Kultura parte-hartzailea sustatzea



18 DIVERSIDAD LINGÜÍSTICA Y CULTURAL
Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna

TOKIKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUAK INDARTZEA

1. Merkataritza biziberritzako Plan Berezia (PERCO) gauzatu.

2018an, eta Ilinti merkatarien elkartearekin egindako lanari esker, aho batez onartu zen gure udalerrian merkataritza biziberritzeko lehen plana, gure saltokiak, zerbitzuak eta ostalaritza-negozioak sustatzeko.

Aipatutako planean jasotako neurriak garatu eta gauzatzeko, lan-talde bat osatu da. Honakoek osatzen dute taldea: Ilinti, Lenbur, Ugassa eta Udala. Talde-lan horretatik sortu zen Olentzero azoka.

2. Turismoak udalerrian duen inpaktu ekonomikoa neurtu.

Azken urteotan, Legazpin gora egin du bisitari-kopuruak, eta, horren ondorioz, gure udalerria eskualdeko bisitatuena da.

Familia-planak, Olentzero, ogiaren museoa, gaztaren museoa, Mirandaolako burdinola –duela gutxi ASM International elkartearen nazioarteko 50. aintzatespena jaso zuena–,...., Lenbur fundazioak eskaintzen dituen ekintzak dira eta horiek gure udalerria turistentzat erakargarri eta interesgarri bihurtzen dute.

Bestetik, erronka berriak daudela ikusten da, hala nola gero eta interes handiagoa pizten duen Ignaziotar bidea. Horregatik guztiagatik, turismoak gure udalerrian duen eragin ekonomikoa neurtu behar dugu, ezinbestekoa baita errealitate hori ezagutzea, eta, ondoren, etorkizuneko eszenatokiak planteatzea.

3. Sari bat sortu, merkataritzan egindako lana aitortzeko.

Merkataritza funtsezko faktorea da gure kaleak bizirik mantentzeko. Horregatik, garrantzitsua eta bidezkoa iruditzen zaigu haiek egindako lana sari batekin aitortzea.

03 HELBURUA – HERRITARRAK – GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA BULTZATZEA

02 EKINTZA– IDEIEN LABORATEGI BAT MARTXAN JARRI

	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	HIRUHILEKO KRONOGRAMA				
			2019	2020	2021	2022	2023
1	HAUSNARKETA ESTRATEGIKORAKO TOPAGUNEA SORTU						
	60.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Zerbitzuko teknikaria					
2	IDEIEN LABORATEGIKO LAN-EREDUARI BURUZ HAUSNARTU						
	Baliabide propioak	Zinegotzi ordezkaria / Zerbitzuko teknikaria					
3	PROPOSATUTAKO IDEIA ESTRATEGIKOAK LEHENETSI ETA MARTXAN JARRI						
	100.000,00 €	Zinegotzi ordezkaria / Zerbitzuko teknikaria					

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUEI EKARPENAK

 <p>8 TRABAJO DECENTE Y CRECIMIENTO ECONÓMICO</p> <p>Kultura ekintzailean, berrikuntzan eta enpresa-ehunaren ingurumen-kalitatean oinarritutako garapen ekonomikoa. Gizarte-ekonomia eta turismo jasagarria ere sustatzen ditu. Gazte langabeentzako ekintzak zuzentzea ere planteatzen du</p>	 <p>10 REDUCCIÓN DE LAS DESIGUALDADES</p> <p>Aukera-berdintasuna sustatzea biztanleriaren sektore guztientzat</p>
 <p>11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES</p> <p>Kultura parte-hartzailea sustatzea</p>	 <p>18 DIVERSIDAD LINGÜÍSTICA Y CULTURAL</p> <p>Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna</p>

IDEIEN LABORATEGIA MARTXAN JARTZEA

1. Hausnarketa estrategikorako topagune bat sortu.

Hausnarketa estrategikoa funtsezko prozesua da epe ertain eta luzerako jarduerak identifikatzeko. Ondoren, identifikatutako jarduerak martxan jarri behar ditugu Legazpi berdinzalea, kritikoa, lankidetzakoa, inklusiboa, askotarikoa, modernoa, berritzailea, jasangarria eta euskalduna lortzeko eta Legazpi lan egiteko, gozatzeko eta bizitzeko udalerrri erakargarria izateko.

Horretarako, elkartzeko gune ireki bat sortu behar da, gure udalerriarekin konprometitutako herriko eragileen parte-hartzean eta lankidetzan oinarritua.

2. Ideien laborategiko lan-ereduari buruz hausnartu.

Herritarren parte-hartzearen kultura oso errotuta dago Legazpin. Lan eredua, etorkizuneko Legazpi lortzeko ibilbide-orriak diseinatuko dituzten legazpiar agenteekin hausnarketa estrategikoa egiteko guneak jarraipena eta iraunkorra izateko bokazioarekin definituko da.

3. Proposatutako ideia estrategikoak lehenetsi eta martxan jarri.

Ibilbide-orri estrategikoa lehenesteko eta abian jartzeko, parte-hartzearen bidezko ikuspegi metodologikoari jarraituko zaio, eta jarduteko lehentasunak zehaztuko dira, tokiko talde edo alderdi interesdun guztien behar eta interesekin lerrokatuta.

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEI EKARPEN (GJH)

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak pertsonen, planetaren eta oparotasunaren alde 2015ean onartutako plana da. Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) nahitaezkoak ez diren arren, Gobernu-taldeak bere egin ditu, eta iparrorratz gisa erabiltzen ditu 2019-2023ko Gobernu-planaren helburuak munduko helburuekin bateratzeko.

1		Pobreziaren amaiera: Hainbat gai jorratzen ditu, hala nola pobrezia eta hainbat kolektiboren zurgarritasuna, zahartze aktiboa, gizarte-baliabideetarako sarbidea edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako prestazioak.
2		Goserik ez: Nekazaritza- eta abeltzaintza-produktibitatea hobetzea eta jarduera ekologikoak bultzatzea, hazi eta landare autoktonoen bankuak dibertsifikatzea, eta autokontsumorako baratzeak eta tokiko ekoizpena sustatzea.
3		Osasuna eta ongizatea: Ohitura eta bizimodu osasungarriak sustatzen ditu, kalitate akustikoa hobetuz, kutsadura elektromagnetikoa kontrolatuz eta jarraipena eginez, bai eta mugikortasunarekin eta garraioarekin lotutako guztia ere
4		Kalitatezko hezkuntza: Hezkuntza-, kultura- eta kirol-ekipamenduetarako sarbidea erraztea, garapen iraunkorrean, bakean eta kulturartekotasunean hezteak, eta udalerriko kultura-sarea dinamizatzea. Euskararen sustapena ere lotzen da.
5		Genero-berdintasuna: Berdintasun-politikak garatzea sustatzen du, emakumeen eta neskatuen ahalduntzea babestu eta sustatzen du maila pertsonalean, kolektiboan, sozialean eta politikoan, eragile guztiak inplikatzeko gizarte-eredu jasangarriago eta berdinzaleago bat lortzen laguntzeko.
6		Ur garbia eta saneamendua: Ur-baliabideen kontrolari eta kudeaketari heltzen dio, ur-kontsumoa arrazionalizatuz, kutsadura-arriskua murriztuz eta jolas-, kirol- eta jai-erabilerako uren kalitatea bermatuz
7		Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea: Tokiko energia-iturri garbi eta berriztagarrien erabileran aurrera egitea, kontsumoa arrazionalizatzea eta energia-eraginkortasuna handitzea, eta, gainera, pobreziaren eragina eta biztanleriaren zurgarritasun energetikoa murriztea
8		Lan duina eta hazkunde ekonomikoa: Kultura ekintzailean, berrikuntzan eta enpresa-ehunaren ingurumen-kalitatean oinarritutako garapen ekonomikoa. Gizarte-ekonomia eta turismo jasangarria ere sustatzen ditu. Gazte langabeentzako ekintzak zuzentzea ere planteatzen du.
9		Industria, berrikuntza eta azpiegitura: udalerriko jardueri eragiten dieten arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dela bermatzea.
10		Desberdintasunak murriztea: Etorkinak gizarteratzeari eta erabat integratzeari heltzen dio, biztanleriaren sektore guztiarentzako aukera-berdintasuna sustatzea, hauren eskubideak bermatzea, eta etxebizitza libre eta babestua sustatzea.
11		Hiri eta komunitate jasangarriak: Kutsadura atmosferikoaren arriskuak ezagutzea, kontrolatzea eta prebenitzea, kultura parte-hartzailea sustatzea, etxebizitzaren birgaitzea eta hiri-erregenerazioa bultzatzea, eta hirigintza-plangintza iraunkorra bermatzea.
12		Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak: Udalaren ingurumen-kudeaketa jasotzen du, erosketak eta kontratazio publiko berdea, kontsumo iraunkorraren sustapena eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa barne. Elikagaiak alferrik galtzearen aurkako borroka ere planteatzen du.
13		Klimaren aldeko ekintza: Hauek jasotzen ditu: klima-aldaketaren arloko plangintza eta kudeaketa aktiboa, berotegi-efektuko gasen emisioak arintzen aurrera egiteko konpromiso irrimoak hartzea eta klimamehatxuen ondoriozko inpaktuetatik egokitzeko plangintza lantzea.
14		Itsaspeko bizitza: Itsasoan amaitzen diren baliabide hidrikoak kutsatzeko arriskua murriztea.
15		Lehorreko ekosistemetak bizitza: ekosistemak eta haien zerbitzuak babestea, mantentzea eta leheneratzea, natura-ondarearen kudeaketa eraginkorra eta efizientea egitea, eta naturaren ezagutza eta kultura sustatzea. Lurzoru kutsatuen kontrola eta basoen kudeaketa iraunkorra.
16		Bakea, justizia eta instituzio sendoak: bizikidetzarekin eta herritarren segurtasunarekin, kultura-aniztasunarekin eta bakearekin lotutako alderdiak jorratzen ditu. Gainera, kontuak emateari, gardentasunari eta informazioa eskuratzeari heltzen die, bai eta sailen arteko koordinazioari eta eskolako 21 agendari ere.
17		Helburuak lortzeko itunak: Beste erakunde batzuekiko koordinazioa eta sareko lana indartzea. Elkartzunezko jarduerak sustatzea, nazioarteko lankidetzako jarduerak sustatzea eta kultura-, lankidetzak- eta elkartzune-trukeak sustatzea.
18		Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna: Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta onarpenera bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa

HELBURU ESTRATEGIKOAK GOBERNU-PLANA	GARAPEN JASANGARRIRAKO 17 HELBURU+ 1																	
	Pobrezia-aren amaiera	Goserik ez	Osasuna eta ongizatea	Kalitateko hezkuntza	Genero-berdintasuna	Ur garbia eta saneamendua	Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea	Lan duina	Industria, berrikuntza	Desberdintasunak murriztea	Hiri eta komunitate jasangarririk	Ekizpen eta kontsumo arduratsuek	Klimaren aldeko ekintza	Itsaspeko bizitza	Lehorreko ekosistemetak bizitza	Bakea, justizia eta instituzio sendoak	Helburuak lortzeko itunak	Kultura-eta hizkuntza-aniztasuna
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18
Udal eraginkorra																		
Udal eredugarria																		
Hirigintza harmoniatua eta erresilientea																		
Ondare-publiko egokia eta hobetua																		
Arreta, babesa eta garapen sozial berritzailea bermatu																		
Gizarte euskalduna, aktiboa eta parte-hartzailea sustatu																		
Garapen sozioekonomikoa bultzatu																		

Jarraian, 2019-2023ko Gobernu-plan honen ekarpena ebaluatzeko ezarritako jarraipen-adierazleak zerrendatzen dira:

1		Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak 1.000 biztanleko. Gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzen dituzten bizikidetza-unitateak 1.000 biztanleko.
2		Lehen sektorearen balio erantsi gordina Nekazaritza ekologikoaren azalera Abeltzaintza ekologikoaren azalera
3		Airearen kalitatearen indizea Emakumeen bizi-itxaropena Gizonen bizi-itxaropena Trafiko-istripuek eragindako lesioen biktimak
4		0 eta 3 urte bitarteko haur-hezkuntzako plazak Eskolako Agenda 21ean parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleak Bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten pertsonak Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten emakumeak Gutxienez bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten gizonak Unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak Unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak Unibertsitate-ikasketak dituzten gizonak
5		Batez besteko errenta pertsonala Emakumeen batez besteko errenta pertsonala Gizonen batez besteko errenta pertsonala Emakumeen ehunekoa udalbatzan Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak
6		Edateko uraren kalifikazio sanitarioa Etxeko ur-kontsumoa, biztanleko eta eguneko Kontrolatu gabeko ur-kontsumoen ehunekoa (baja-sareko galerak eta fakturatu gabeko ura)

7		Energia elektrikoaren etxeko kontsumoa, biztanleko eta eguneko Etxebizitzen eta eraikinen energia-eraginkortasuna
8		Barne-produktu gordina per capita Udalerriko establezimenduetako enpleguak Langabezia-tasa Emakumeen langabezia-tasa Gizonen langabezia-tasa Gazteen langabezia-tasa
9		Ingurumen-kudeaketako tresnen ezarpen-maila (enpresa pribatuetan, udalaz gaindiko administrazio publikoan eta udalaz kanpoko beste erakunde eta entitate batzuetan)
10		Babestutako etxebizitzen kopurua Immigrazio-tasa
11		Lurzoru artifizializatua Hiriko parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten azalera Suspenzioan dauden partikula finen kontzentrazioa (PM 10) Udalerrian mendekotasun-mailaren bat duten pertsonak
12		Sortutako etxeko eta merkataritzako hondakinak guztira, biztanleko eta eguneko Etxeko eta merkataritzako hondakinen gaikako bilketaren tasa Erosketa eta kontratazio publiko berdea. Ingurumen-klausulak dituzten lizitazioen zenbatekoa
13		Udalerriko berotegi-efektuko gasen isurketak, biztanleko eta urteko (industriarik eta lehen sektorerik gabe) Udalaren karbono-aztarna, biztanleko eta urteko
14		Estuarioetako uren kalitatea Itsasertzeko uren kalitatea
15		Babes bereziko azalera, udalerrriaren azalera osoarekiko Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak berreskuratzea
16		Herritarrek parte hartzeko 2030 Agendako aurrez aurreko bilerak Parte hartze bidezko aurrekontuak
17		Garapenerako nazioarteko lankidetzara bideratutako udal-aurrekontua Garapen jasangarrirako aliantzak
18		Euskararen ezagutza



**LEGAZPIKO
UDALA**

www.legazpi.eus